



ERDI AROKO GIZARTE EGITURA GERNIKA LUMON

Unitate didaktikoen bilduma (5)

Egilea:

Gernikazarra Historia Taldea

Argitaratzailea:

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila

Babesleak:

Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Saila

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskara Zuzendaritza)

Maketa eta inprimaketa:

Gertu inprimategia (Oñati)

Urtea: 2011ko edizioa

Aurkibidea

- 1. Goi erdi aroko bizimodua**
- 2. Lumo 1300 urtearen inguruan**
- 3. Hiribildua sortu zen Gernikan**
- 4. Behe erdi aroko krisialdia**
- 5. Gernika eta Lumoko leinu nagusiak: Mezetarrak eta Albiztarrak.**
- 6. Busturialdeko leinu nagusiak: Arteagarra eta Muxikarra**
- 7. Hiriko eta gure landa-inguruko dorretxeak**

1. GOI ERDI AROKO BIZIMODUA

Goi erdi aroan, gure arbasoek bizimodu nomada edo erdi nomada zuten, abeltzain transhumante gisa. Lehenengo kokaleku egonkorrak zuhaitz-adarrez eta hostoz eginitako “korta” deituriko artzain etxolak izan ziren. “Korta” hauek mendi tontorrean kokatuta zeuden, ibaietako uholdeetatik urrun, eta etsaiak ahalik eta ondoen behatzeko. Artzain etxolek baserriei eman zioten bide beranduago (badira oraindik Lumo aldean “korta” hitza eta atzizkia duten toponimoak: Marikorta, Olakorta).

Lumoko monasterioa

X-XI. mendeen bitartean, baziren Urdaibain mendi maldetan kokatutako zenbait talde egonkor, musulmanengandik ihes egin zuten Iberiar penintsulako erdialdeko jendez osatuak. Urdaibaiko bertokoek artean izan zuten bizimodua erabat aldatu zuten etorri berri hauek, sedentarismoa eta nekazaritza oinarri zutelako eta erlijioz kristauak izanik. Gizakiok, “monasterio” deituriko mendi maldetan eraikitako etxe multzoetan bizi ziren.



Talde horietako bat, Kosnoaga mendiaren hegian kokatu zen, eta bertan eraiki zuten monasterio bat. Ez zen aukeraketa txarra izan: hego-ekialdera begira (horrela eguzki-argia hartzen zuten egun osoan). Monasterio hau larretatik eta basotik hurbil zegoen eta, aldi berean, Urdaibaiko paduratik aldentuta. Leku honetan kolono taldeek lurraldea okupatu, goldatu eta laboreak erein egin zituzten, eta baita basiliza eraiki ere. Bitartean, bertokoak (gizarte arkaiko girokoak, historiaurretik ia aldaketarik izan ez zutenek gizarte egituraketan eta ekonomia arloan), harriturik zeuden beraien lurraldean gertatzen ari ziren aldaketa iraultzaileekin.

Gizarte antolakuntza

1000. urtearen bueltan, Bizkaian egitura sozial zaharkitua eta oso hierarkizatua zegoen. Gizartearen piramidearen erpinean kondea zegoen, jabego handienarekin. Bere aginduetara “senior” zeritzotenak (monasterioetako jauntxoak, jabe handiak, eta leinue-



Ahaide nagusiak

tako buruak). Hauen azpian “militeak” zeuden, bigarren mailako nobleak. Gero, “homines” taldekoak, batzuetan gizaki aske eta beste batzuetan morroi. Azkenean, gizarteko behe-rengo mailan, jopuak zeuden (gaztelaniaz “collazos” deiturikoak), benetako esklaboak. Hauek jaunaren lurak lantzen zituzten eta erosi zein saldu egin zitezkeen jaunaren ondasuntzat hartuak ziren eta.

2. LUMO 1300. INGURUAN

Ekonomiaren suspertze sendoa

XIII. mendea geroztik, ondoko Gaztelako erresuma aberastu egin zen andaluziako lurralde emankorren konkista bitarteko. Gainera, Europa aldera esportatzeko artile piloa zeukan (lehengai garrantzitsua sasoian). Horretarako, Bizkaiko itsas portuak erabili zituen Gaztelak, bertako arrantzaleak ondotxo ezagutzen baitzituzten itsas bideak eta europar itsas portuak.

Honela, Bizkaia bazterreko txokoa izatetik europar merkataritzako bideetan murgildu zen, bere itsas portuei esker. Gainera, gure arbaso bizkaitarrak, artileaz gain, bere burdina esportatzen hasi ziren eta manufakturak inportatzen, batez ere europar oihalak eta ehunak. Honen guztiaren ondorioz, ekonomia garapen handia izan zen eta honek dibertsifikazio ekonomiko onuragarria ekarri zuen, errenta eta soberakinak sortzen ziren eta.

1300. inguruko gizarte antolakuntza

Garai hartan, gizartearen piramidearen gailurrean Bizkaiko Jauna zegoen, erregearen funtzioak betetzen zituen estatu txiki baten burua: zaldunak izendatu, justizia kudeatu, armada zuzendu, etab.

Bere menpe, gizartearen bigarren mailan, Ahaide Nagusiak, itun baten bidez jaunarekiko leialak zirenak. Beraz, Bizkaiko Jauna beste jaun guztien gainetiko Jaun bihurtu zen. Ahaide Nagusi hauek Jaunaren alde borrokatzen ziren gudetan eta honek saritu egiten zituen konkistaturiko lurraldeak emanez edo bestelako ordainekin (nekazariak ematen zizkien, monasterioetako zergak, edo monasterioak eurak oso-osorik). Beraz, Ahaide Nagusi-entzat errez aberasteko bidea bihurtu zen guda.

Hirugarren eta azken mailan, aurreko jopuak ordezkatzeko zituzten nekazariak zeuden. Beren bizimodua, Bizkaiko Jaunarekiko eta hurkoen zituzten Ahaide Nagusiekiko menpekotasunak baldintzatzen zuen erabat. Nekazariak jaunei sor zizkietenak, hauek ziren:



Nekazal eszena

- Zergak, beraien jabegoetan egotearren.
- Lan egin bideak eta zubiak egiten, jaunak hala eskatuz gero.
- Jaunarekiko guda-zerbitzua kitatzen ordaindu.
- Bere ondasun hutsalaren zati bat oparitu behar zion jaunari, senideen aldeko oinordekotza egiterakoan.


Azken batean, jauntxoren baten menpeko monasterioko esklabo hutsak ziren, eta erabat murriztuta zituzten beren joan-etorriak. Askatasuna lortzeko bide bakarra, Bizkaian sortu ziren hiribilduetara ihes egitea zen.

3. HIRIBILDUAK SORTU ZEN GERNIKAN

Bizkaian hiribilduak sortzearen arrazoiak

Bizkaiko hiribilduak arrazoi ezberdinegatik sortu ziren, fundazioaren garaia-
bera:

Lehenengo aldian (1199-1287) lautada eta kostaldearen arteko merkataritza ber-
matzen zuten tokietan ezarri ziren hiribilduak (Balmaseda, Urduña, Otxandio, La-
nestosa, Bermeo, Plentzia), Bizkaiko itsas portuak baitziren gaztelar artilea Euro-
para bideratzeko bidea.



Gernika. Martitegi

Bigarren aldiak (1299-1338)
Europarako esportazioak bul-
tztatzea izan zuen xede. Horre-
gatik sortu ziren hiribildu be-
rriak itsas portuetan (Plentzia,
Bilbo, Portugalete, Lekeitio,
Ondarroa), eta bide berriak
egin ziren (Durango, Ermua,
eta Areatzarakoak).

Hirugarren aldian (1355-1376), ezegonkortasuna izan zen nagusi gizartean. Sasoi
honetan, bandoen arteko gerrateen ondorioz, sakabanatutako populazioa
bildu eta babesteko sortu ziren hiribilduak. Horregatik, aldi honetako hiriek de-
nek, harresia izan zuten inguruan (Markina, Elorrio, Gerrikaitz, Ugao, Mungia, La-
rrabetzu, Errigoiti).

Gernikarena aparteko kasua izan zen. 1366an sortua izan arren, giro sozial oso eze-
gonkorreko sasoi, gure udalerria ez zen sortu gotorleku gisa, merkatal gun-
e bezala baino.

Gernikako hiribilduaren antolaketa soziala

On Tello kondeak izendatu zuen hiri Gernika. Honek Logroñoeko Forua eman zion kokagune berri honi. Sasoirako oso legedi aurrerakoia zen, pribilegio eta eskubide ugari ematen zizkielarik hiritarrei. Besteak beste:

- Hiribilduko biztanleek (gernikarrak, kasuan) lursailak eta ondasunak erosteko askatasuna zuten.
- Hiribilduko biztanleek ez zuten inolako jauntxoenganako arma zerbitzurik egin beharrik.
- Eskubide zabalak larretan, basoetan eta ur eremuetan.
- Merkataritza askatasuna.
- Babes penala eta epai-prozesu bermatuak, jauntxoek gehiegikerien aurrean.
- Hiribilduetako biztanleek bermatuta zuten baita ere, Logroñoeko Forupean ziren ondasunak ezin zirela jauntxoek esku geratu.



Mezeta dorretxea. F. Hierro

Logroñoeko Forua eskuratzerakoan, Gernikan fundatu zen hiriko biztanleek pribilegio hauek guztiak hartu zituzten beraientzat, Baina aurreko guztiak aparte, On Tellok beste eskubide hauek eman zizkien hiritarrei:



- Bizkaiko Jaunarentzat zen norberaren ondasunen gaineko zergatik salbuetsita zeuden.
- Gernikako bizilagunen bat seme-albarik gabe hilez gero, bere ondasunak ez ziren automatikoki Bizkaiko Jaunaren esku geratzen.
- Zenduen senideek ez zuten hildakoagatik zergarik ordaindu behar.
- Hiribilduko biztanleek guztiek, aberatsak zein txiroak, nobleak zein herritar xeheak, zergak berberak ordaindu behar zituzten eta eskubide berberak zituzten.

1376ko hiritartzea

On Tellok, Gernikako hiria sortu zuenean, baimendu egin zien Urdaibaiko 31 bat lurjabeei hiritar bihurtzea. Hamar urte geroago, 1376an, Bizkaiko Jaunak babestu nahi izan zituen nekazari zentzuariok jauntxoek gehiegikerietatik, eta asmo horrekin, baimendu egin zien nekazariei hiribilduan egoitza hartzea.

Nekazari zentzuariok, artean, Bizkaiko Jaunaren lursailak ustiatu zituzten eta, hortaz, alokairua ordaindu behar zioten. Baina juridikoki Bizkaiko Jaunaren menpe baziren ere, landetako jauntxoek jabegoko lurraldeetan bizi zirenez, hauek azkenak ziren euren benetako jaunak.

Gernikako hiria sortu eta gutxira, Bizkaian ezegonkortasun politikoak eta sozialak gora egin zuen nabarmen eta jauntxoek oldarkor ekin zieten Bizkaiko Jaunaren nekazariei, zergak ordain diezazkieten beraiei ere. 1376ko hiritartzearekin, hauetako nekazari asko Gernikan hiritartu ziren.

4. BEHE ERDI AROKO KRISIALDIA

Bandoetako gerrateak

Gorakada ekonomiko luze baten ostean (X. eta XIII. mendeen artekoa), XIV. mendean atzeraldi bat izan zen eta berarekin gosetea, txirotasuna, bizitza-mailaren debaluzioa eta errenten beherakada handia.

Landa-nobleziak eutsi egin zion bere bizitza mailari bide ezberdinetatik: nekazariei zerga gehiago ordain eraziz; elizak kobratzen zituen zenbait zergez eurak jabetuz; botere judiziala manipulatzuz eta beren gogora izendatuz Alkateak, Ofizialak eta abar. Edozein bide zen ona beraien bizitza-mailari eusteko. Hala ere, hau guztia ez zen nahikoa, sarritan suertatzen baitziren nobleen arteko borrokak, bata besteari errentak eta ondasunak kentzearren.

Jauntxoek gehiegikerietatik bere burua babesteko nekazarien erantzunak askotarikoak izan ziren: batzuetan harresiz inguratutako hiribilduak sortu, non babes zitezkeen; besteetan, hainbat nekazarik hiribilduetara jo zuten bertako foruen babesera; eta azkenik, irtenbide arriskutsuena eta erradikalena, lantzen zituzten lursailetatik ihes egin. Baina ez hiribildu harresitu berriek, ezta nekazarien ihesak, ez zuten bandoen arteko gerrekin amaitu. Jauntxoek asegabeko lukurreriarako partxeak besterik ez ziren. Arrazoi horrengatik, Bizkaiko Jaunek armei ekin zieten jauntxoak menderatzeko eta Bizkaian ordena berrezartzeko. Horrela sortu ziren Anaidiak, nobleen kontra egiteko hirietako biztanleek eta nekazariak osaturiko defentsa-elkarteak.


1390ean, Gonzalo Moro Erregidoreak Anaidiak bidali zituen Bizkaiko Ahaide Nagusien aurka eta 1394an hauen kontrako lege gogorrak ezarri zituen. Honela lortu zen hamarkada batzuetako bakealdia eta egonkortasun soziala. Bestalde, hurrengo mendean berriro agertu ziren bizkaitar jauntxoek gehiegikeriak. Haroko kondea borrokatu egin zen haiekin, baina galtzaile atera zen 1471ko guda aldian, Muxikakoak eta Abendañokoak nagusitu zirelarik. Errege Katolikoek eman zioten amaiera gaitz honi Ahaide Nagusiak menderatuz, beren ordezkaria izan zen Chinchilla lizenziatuari esker.

Gatazka armatuak Gernika-Lumo aldean

Behe erdi aroko krisialdi honek izan zuen bere isla Urdaibain. Butroi eta Muxikakoak, “oinaztarren” alde (itsasadarraren eskuinaldeko ertzean) eta Abendaño eta Salazartarrak “ganboatarren” alde (azken hauek ezkerreko ertzean indartsu).

Badaukagu zenbait istilu eta borroken berri gure inguru honetan:

-**1427an**, talde bien arteko tirabirak eztanda egin zuen otordu batean. Diru-kontu batzuei buruzko hitz-oker batzuek, jankideen arteko borroka sutua piztu zuten, eta lagun batzuk hilik suertatu ziren. Krudelkeriak goi-goi jo zuen, Juan de Belendizen semeek beren osaba zen Pedro Abad de Fuyca, 90 urteko agure itsua, hil zute-nean, burua moztuz aizkorakada batekin.



Banderizoen bake-ituna. J. Echenagusia

- **1442ko urtarrilean**, bi bandoetako nobleen arteko tentsioaz ohartuz, Bizkaiko Jaunak ganboatarrak ziren Abendañokoak eta beraien aldeko beste leinuak, Gernikako Batzarretara bertaratzeko betekizunetik salbuetsi zituen, inguru hau oso arriskutsua zelako beraientzat, oinaztarren aldekoak ziren Butroi, Arteaga eta Lopez de Salazar nagusi baitziren.


-1445ko abuztuaren 2an, astelehena, Butroikoak eta Artegakoak elkar burukatu ziren Gernikako errenteriatik hurbil. Bertan, Arteagakoen aldeko sei gizon eta emakume bat, eta Butroikoen beste bi gizon hil ziren. 60 gizon ere zauriturik suertatu ziren Arteagakoen aldetik. Zer esanik ez, Butroikoak atera ziren galtzaile.

-1446ko ekainaren 22an, asteazkena, Pedro de Abendaño gidaritzapeko mila soldadutik gorako gudaroste batek hartu zuen Bermeo. Beranduxeago, oinaztarren aldeko 600 bat gizon ez osatutako oste batek, aurrekoen kontra borrokatu eta Bermeotik kanporatu egin zituzten, Gernikarantz alde eraginda. Bertan izan zen Pedro Abendaño 15 egunetan, eta tarte horretan, Gernikan ziren oinaztarren aldekoen etxeak erre egin zituzten eta beren ondasunak suntsitu.

-1450eko martxoaren 19an, ostirala, Anaidiak erre egin zituen Arteagakoen dorrea eta beste hiru etxe Gernikan.

-1462ko abuztuaren 8an, ostirala baita, 25 lagun izan ziren zaurituak Iburguen eta Mezetarren artean Gernikan izan zen gudan.

-1468ko maiatzean, Juan Alfonso de Butroiek, 20 gizonek lagunduta, eraso egin zien Fortun Garcia de Arteaga eta Juan de Abendaño lehengusuei Gernikako itsasadarrean. Guda honetan Juan de Arteaga (Fortunen anaia) hil zuten, eta preso hartu zituzten Alvaro de Urquizu, Pedro Martinez de Albiz eta Ochoa Sanchez de Gorostiaga alkatea



Besamanos koadroaren detailea. Mendieta

Leinuen antolaketa soziala

Egitura sozialaren piramidearen erpinean, ahaide nagusiak zeuden, leinuetako bu-ruak. Hauek lurraldeak hartzen zituzten Bizkaiko Jaunarengandik, benetako jaun feuda-lak bihurtuz, botere absolutua izanik lurraldean eta bertako lagunengan. Ahaide Nagu-sia zentzerakoan, bere botere guztiak, ondasunak, eta lurraldeak seme nagusiak hartzen zituen maiorazkoari eutsiz.

Ahaide nagusien menpe ahaide txikiak zeuden, nagusiaren eskakizunak eta agin-duak leialtasunez betetzen zituztenak.

Hurrengo mailan leinuko emakumeak ziren, zeinek ezkondu egiten zituzten hitzar-menak egiteko, leialtasunak lortzeko edo bestelako onurak lortzearren. Honela, aitagina-rreba, koinatu, suhi, osaba, lehengusu eta lobak berriak ahaide nagusiaren sendiaren parte bihurtzen ziren.

Gizartearen azken maila, leinuarekiko atxikimendua egindakoek osatzen zuten, le-kaioak (gudetako harrapakinak eta soldata eskuratzearren borrokatzen zirenak) eta ako-tatuak (justiziari ihes eginda, ahaide nagusiaren babesean zirenak, trukean zerbitzu mili-tarrak eskainiz).

5. LUMOKO ETA GERNIKAKO LEINU NAGUSIAK

Mezetatarren leinua



Mezeta dorretxea

Beraien jatorrizko etxea Lumon zuten, bertako jaun eta jabe zirelarik. Lumoko San Pedro elizako patronatoa zen beren ondasunetako bat. Eskubide ugari izan zituzten errenterian eta portuan, hasieran Lumokoak eta gero Gernikako hiriarenak izango zirenak.

Lumoko jatorria izan arren, Mezetatarrek harreman estua zuten Gernikako hiriarekin. Esatearren, Mezetatarren armarrian agertzen diren haritza eta otsoa, Gernikako armari zaharrean dauden berberak dira, hiribilduan zuten eraginaren isla. Mezetatarrek, On Tello kondearen hurkoak zirenetik, izan zuten lotura Gernikarekin. Hain zuten ere, litekeena da On Tellorekin negoziatu izana Gernikako auzoa eta portua Lumotik bereiztea, eta hiri titulua ematea. Horren ordeztu, Mezetatarren esku geratu ziren hiribilduko prebostarritza eta Andra Mari parrokia berriaren eta errenteria-etxeko burdinen zergak.

Mezetatarren leinukoek dorretxea eraiki nahi izan zuten hiri barruan eta toki ezin hobe aukeratu zuten horretarako: harresiari atxikituta, sarrera nagusiaren ondoan, zuzen-zuzen portura eta errenteria-etxera hletzako bidean.

Mezetatar batzuk Lumoko Saraspe auzoan bizi ziren, harresitutako hirigunetik at, eta besteren batek, dorretxe berria eraiki zuen Kanpantxun (Ajangiz), Santa Marina errotaren ondoan. Aldi berean, interesak zituzten Arratzuko Santo Tomas elizan eta Ziortzako Kolegiatan, eta mendi eta burdinolak zituzten baita Gerrikaitzen.

Mezetatarren leinuak, bat egin zuen oinaztar buruzagiak ziren Butroi eta Muxikakoekin.



Mezetatarren armarria

Albiztarren leinua

Jatorrizko etxea Mendatako Albiz auzoan izan arren, laster hiritartu ziren Gernikan, non bere kontrolpean izan zuten errenteria-etxea. Leinu honek ahalmen handia lortu zuten bai hiribilduan (bertako alkate, eskribau, eta abarreko karguak izan zituzten bere gain), baita eskualde osoan, Busturiako foru-alkatea, eskualdeko merinoa eta Busturiako Anaidiko alkatea, beraien familiakoak izan zirelarik.

Leinu hau neutrala izan zen hamarkadetan eskualdeko bando nagusiek (Muxika eta Arteaga) izan zituzten liskarretan. Horrexegatik, harremanak eta hitzarmenak izan zituzten ia aldi berean leinu biek, denbora luzez.



Urdaibai dorretxea

Leinu hau neutrala izan zen hamarkadetan eskualdeko bando nagusiek (Muxika eta Arteaga) izan zituzten liskarretan. Horrexegatik, harremanak eta hitzarmenak izan zituzten ia aldi berean leinu biek, denbora luzez.

Beren ondasunen artean (Mendatako Albizko dorretxeaz aparte), hauexek ditugu garrantzitsuenak: Garekako dorretxea (Belendiz eta Kortezubi artean); Urdaibaiko dorrea (Forun); Busturia, Murueta eta Gerrikaitzeko elizen patronatoa; eta interes handiak zituzten ere La Antiguako Andra Mari elizan (Lumon), Arratzuko elizan eta Ziortzako Kolegiatan.

6. BUSTURIALDEKO LEINU NAGUSIAK

Artegako leinua

Gautegizekoak ditugu Arteagarrak, jatorriz. Botere handia izan zuen leinu honek Gernikako itsasadarrean zehar. Bermeoko hiribildua, Foruko San Martin eliza (Albiztarrekin erdibanatuta) eta Gautegizeko Andra Mari (bertan hobiratzen ziren sendikoak) kontrolatzen zituzten. Beren jabegoak hurrengoak: Montalbaneko dorretxea, Berrekondo ibaian ziren hiru burdinola, beste lau burdinola Gerrikaitzen, Eako dorretxea,...



Montalban dorretxea

Busturialdeak XV. mendeko lehenengo hiru hamarkadetan izan zuen bakealdia, Arteagako jaunak Muxikako leinuko alaba batekin izandako ezkontzari esker izan zen. Baina 1940. urte inguruko hamarkadan hautsi egin zen bake akordioa eta 30 urteko gerra giro bortitza piztu zen gure eskualdean. Aldi bortitz honetan, Muxikarrak gailendu egin zitzairen Artegakoei, Gautegizeko eta Arratzuko dorretxeak hondatuz. Muxikakoek ere, suntsitu egin zituzten bere etsaien lagun ziren Belendiz eta Barrutiakoen dorretxeak, Arteagarrek babes bila jo behar izan zutelarik, beraien aldeko Ahaide Nagusiak ziren Arratiako Abendaño eta Gipuzkoako Ganboatarrengana.

Gure udalerriari dagokionez, Arteagarren leinu honek ez zuen izan Lumo aldean boterea eskuratzeko aukerarik, Mezetarren kontrolpean baitzegoen. Hala ere, Butroiakoen eta Mezetarren kontrola saihestuz, Gernikan koatu ziren Portuko San Juan eliza kontrolatuz.

Aurrekoan aipatu dugunez, Arteagarrek bat egin zuten Abendaño eta Ganboatarrekin, eta Muxikarren etsairik handienak izan ziren.

Muxikarren leinua

Dorretxea Ugarteko San Vicenteko elizatean zegoen. Muxikarrak, Uribeko Butroiairekin eta Gipuzkoako Oinaztarrekin egin zuten bat, eta ikaragarritzko lehia izan zuten Arteagakoekin, Urdaibaien nagusitasuna eta boterea eskuratzearren.



Muxika dorretxea

Leinu honek bere kontrolpean izan zituen San Vicenteko eliza, Ugarteko San Roman, Kortezubikoa eta Arbazegikoa, eta interes handiak izan zituen baita ere Ziortzako Kolegiatan eta nekazarienganako eskubideak Zilonizen. Lumoko Mezetarrekin izan zuten itun bati esker, Busturialdeko arroaren hegoaldea kontrolatzen zuten eta posible izan zuten, baita, etxe bat eraiki Gernikako hiriaren barruan. Gainera, Nuestra Señora de la Antiguako elizako (Lumon) patronatuan sartu ziren.

Butroiko leinu indartsuarekin elkartu ziren, eta ondorioz, denborarekin, Muxikarrena desagertu egin zen lhaiek irentsita.

7. HIRIKO ETA LANDETAKE DORRETXEAK, GURE INGURUAN

Landetako dorretxeak

Bizkaian, dorretxeak Behe Erdi Aroan agertu ziren, XIII. Mendean, eta indar handia hartu zuten XIV.ean, Bizkaiko Jaurrerian bandoen arteko borroken sasoian. Giro bortitzak eragin handia izan zuen dorretxeen sorrera eta hedapenean. Beraien beharraz oharturik, Foru arauetan ere zehaztu egin zen edozein zaldun edo noblek dorretxea eraikitzeke izan zezakeen eskubidea (Foru Zaharreko 162. kapitulua; eta Foru Berrian, 34. titulua).


Hala ere, edozein jauntxok izan bazezakeen hiri barruan horrelako dorretxe bat izateko eskubidea, errealitatean Ahaide Nagusiek baino ez zituzten dorretxeak hirietan, eta bertan hartzen zituzten babesean leinuko guztiak.

Hirietako dorretxeak

Jatorria landetan izan arren, hirietan ere nahikotxo dorretxe eraiki zen. Hain zuzen ere, landetan jadanik dorretxea zuten jauntxoek, beste berri bat eraikitzen zuten hiri barruan. Hauek ziren Ahaide Nagusiek hiri barruan dorretxeak eraikitzeke arrazoiak:

- **Guda arrazoiak**: Ezegonkortasun eta seguritate ezaren aldian, komenigarria zen babestokia izatea toki harresituan.

- **Ospeagatik:** Dorretxeen oparotasunak, hiriko etxe xumeen aldean hierarkia bereizi bat ematen zuen, eta jabearen boterearen erakusgarria zen.
- **Arrazoi ekonomikoak:** Ahaide Nagusiek hirietara jotzen zuten bertako bizitza ekonomikoan parte hartzeko, eta jarduera honi onura ateratzeko.



Gernika. F.Hierro

Hiri-dorretxeok, beste hiri-etxeak baino garaiagoak eta hobeto eraikiak ziren, beren beheko solairuan harlanduak baitzituzten hegaletan, ateetan eta leihoetan, manposteria horma lodiekin. Bandoen arteko gerrateen amaiera ondoren, dorretxeen derri gorrezko birmoldaketa etorri zen (galdu egin zituzten beren defentsak eta etxe bihurtu ziren), hauetako askori adreiluzko solairu berria ezarri zitzaien almenak kentzerakoan. Hiriko beste etxeek ez bezala (nahiko luzeak), hiri-dorretxeak karratuak ziren orube bikoi tzak okupatzen zituztelako. Bao gutxi zituzten hobeto defendatzeko. Baorik handienak ateak ziren, bata beheko solairuan, eta bestea goikoan eskailera batez lotua kalearekin.

Gernikako hiribilduaren barruan, hurrengo dorretxe hauek zeuden:

- Elizaren aurrekaldean, Andra Mari kalean, Arizko dorretxe, XIX. mendera arte zutik iraun zuena.
- Goienkalean beste hiru dorretxe izan ziren: Lehenengoa, Arteagarrena, Goienkalea eta Andra Mari kaleen arteko hegalean zegoen, eta denboraz Jaurerriko kartzela funtzioak bete zituen, “kartzela zaharra” izenez ezagutua. Bigarren dorretxea Ibarguenekoa zen, egungo Adolfo Urioste eta Goienkalea arteko hegalean.
- Artekalean, egungo Adolfo Uriosterekin bat egiten duen lekuan, Mezetarrek beren izeneko dorretxea eraiki zuten XV. mendean.

Hiriaren harresitik kanpo Aldapeko dorretxea zegoen (errekatik gertu San Juan aldetik), eta Zarateko dorretxea egungo Pablo Picasso kalean. Beste hirugarren dorretxe bat Mezetarrena zen, egungo Euskal Herria Museoan kokatua.

Gora beherak Gernikan, hiri dorretxe bat zela eta

Gernikako hiriak salaketa aurkeztu zien Errege katolikoei, Juan Sanchez de Mezetak asmoa zuelako dorretxe berria eraikitzeko harresiari atxikituta eta hirian sartzeko ate nagusiaren ondoan. Hain zuzen ere, egun Ferialetik Artekalera sartzeko tokian.

Auzotarrak protesta egin zuten dorretxea kale nagusiaren sarreran eraikitzeko zirelako, merkatal gai guztiak sartu eta atera behar zuten gunean, eta beldur ziren Mezetarrek beraien kontrolpean hartuko zuten hain merkatal gunegarrantzitsua. Salaketa egin arren, dorretxea eraiki egin zen hiritarrek haren kontra ezer egin ezinik.

ARIKETAK

- Egizu dorretxe baten marrazkia eta identifikatu bertan defentsarako diren elementuak eta solairu bakoitzaren funtzioa.
- Hartu gaur egungo Gernika-Lumoko plano bat eta kokatu bertan ertaroan izan ziren dorretxeak.
- Osotu gizarte-piramide bi, oinarritik erpinerraino, erdi aroko talde sozialak bertan kokatuz. 1000. urtean zirenak eta 1300. urtekoak. Erkatu biak eta komentatu.
- Baloratu ertaroko jopuen bizimodua eta beren ezaugarriak. Ezagutzen duzu egun antzeko egoeran direnen kasuak? Nortzuk eta non? Nola bizi dira? Errespetatzen zaizkie giza-eskubideak?
- Idatzi testu bat aurreko jardueran planteiatutako gaiari buruz zure iritzia emanda: “JOPUAK ALA ESKLABUEK EGUNGO MUNDUAN”.
- Erkatu Lumo aldeko nekazariak eta Gernikako hiriko hiritarrek zituzten eskubide eta pribilegioak. Baloratu kasu bien egoera eta egin baten aldeko hautaketa, arrazoiak emanez.
- Eztabaidatu ikasgelan “gerraren” gaia. Erabili horretarako galdera hauek;
 - . Konpondu zuten ezer, ertaroko bandoetako gerrek gure herrian?.
 - . Aipatu gerra horiek, euskaldunen arteko gerra zibiltzat har ditzakegu?
 - . Kasu guztietan gerrak zeozer konpontzen al dute?
 - . Nortzuk ateratzen dira beti galtzaile gerretan?
- Denok dugu leinua. Saia zaitez zure familiaren zuhaitz genealogikoa egiten.

EGILEA



**ARGITARATZAILEA
ETA BABESLEA**

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



LAGUNTZAILEAK

